

**SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA
2017ko UZTAILAK 18**

Santurtziko Udaletxeko Bilera aretoan aipatutako datan goizeko hamar eta erdietan bildu da, horretarako aldez aurretik Presidente jaunak hala deituta, ohiko bileran Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Presidentea: Danel Bringas Egilior jna.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Sonia Cadau Gutierrez-Barquín and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Daniel Urkiaga Alberdi jn. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea
Endika García Sáez jn. EH Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn. Sozialistak Udal Taldea.

Kontu-hartzaile eskuordetua: Jose Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jn.

E.A.aren zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gai-ordenean dauden gaiak aztertzeko.

1. SUEren ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2017ko UZTAILAREN 18ko OHIKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO

Bilerari dagokion akta aldez aurretik bidali denez, ez da bertan irakurri eta Presidente jaunak bozketari ekin dio. Artezkaritza Kontseiluak, Sozialistak udal taldearen ordezkariaren abstentzioarekin onartu egin du Artezkaritza Kontseiluaren 2017ko uztailaren 18ko bileraren akta.

2. 2017KO EKAINEKO 30EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO-EGOERAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak aurrekontuaren ekainera arteko (berau barne) likidazioaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik helarazitako dokumentazioarekin bat datorrena.

Lucena jaunak galdetu du "Tasak eta Bestelako Sarrerak" kapituluaren ea zergatik dagoen -95.329,85 €.

Euskaltegiko zuzendariak erantzun dio.

3. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundearen hainbat konturen berri eman du.

4. GALDERA ETA ESKARIAK

Sozialistak Udal Taldearen ordezkariak galdetu du udako trinkoetarako matrikulazioaz. Era berean, azaldu du ez zaiola heldu Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren zirriborroa.

Presidente jaunak erantzuna eman dio.

Saioaren grabazioa hurrengo helbidean dago:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/hUQkvSu44BPczSh>

eta saioaren akta hurrengo honetan

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/XVVSXj3r5Cdxdf6I#pdfviewer>

Ez dago aztertzeko beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko hamarrak eta berrogeian. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidente
Danel Bringas Egilior

Idazkari eskuordea
Jose Fernando García Pañeda